



## Ertzaintzak gizonezko bat atxilotu du emaztea jipoitu izana egotzita

**VILLABONA** ▶ Herenegun gauean gertatu zen ezbeharra; biktima haurdun dago, eta aurretik ere jasan izan ditu indarkeria erasoak ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

### Bertsolari Txapelketan, gaur eta bihar, final- laurdenak

Agirre eta Gorostidi  
ariko dira ▶ 3



**OINATZ BENGOTXEA** ▶ PILOTARIA

### «Biharkoa berezia izango da Leitzarentzat»

Barriolaren aurka jokatu du ▶ 7

ALEGIA ▶

### AHTren aurkako mozioa onartu du Udalak ▶ 5

OHARRA ▶



Ordua  
aldatuko da  
igande goizaldean:  
03:00etatik 02:00etara.



## Orain Olaberrian

Toyota kontzesionario berria!

# EuskoAuto



Karobi industrialdea z/g  
Olaberria  
Tel.: 943 80 59 26

[www.euskoauto.toyota.es](http://www.euskoauto.toyota.es)

POLITIKA ▶

# Herritarren ekarpen foroa egingo dute gaur goizean Iruñan

Nazio Eztatidaguneak «herritarrek ere parte-hartzeko aukera izan dezaten» antolatu du gaurko ekitaldia

ESTI EZEIZA

Nazio Eztatidagunea (udazkeno bezala, nazio gisa eztabaidatzeko, adosteko eta konpromisoak hartzeko aldi hartu da). Hori dela eta, Parte hartu nahi duten herritar guztiek aukera izan dezaten deza- ten, eta parte-hartze hori sustatzeko, Herritarren Ekarp- en Foroa antolatu dute gaur goi- zeko.

rako. Ekitaldia Iruñeko Golem zinemetan izango da, 09:30ean. «Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitze- ko duen eskubidearen aldeko ari- keta» izango da gaur egingo dutena.

Nazio Eztatidagunea 2003an sortu zen, «Euskal Herriaren eraikuntzarako plan estrate- gikoa adosteko asmoz». Joan den urtean, Nazio estrate- gian aurrera Mintegi irekiak egin zituzten, Nazio Garapene- rako Biltzarrean aurkezturikoa jendaurrean erakusteko.

Tolosako bi politikari dira Nazio Eztatidaguneko kide. Alde batetik, Antton Izagirre Mahaiko Gipuzkoako ordezkaria da eta Onintza Lasak, Nazio Garapenerako Biltzarrean Emakumearen batzordean dihardu.

Alde batetik, Antton Izagirre Mahaiko Gipuzkoako ordezkaria da eta Onintza Lasak, Nazio Garapenerako Biltzarrean Emakumearen batzordean dihardu.

ANTTON IZAGIRRE ▶ NAZIO EZTABAIDAGUNEKO MAHAIKO GIPUZKOAKO ORDEZKARIA

## «Gaurko parte-hartze foroan ekarpenak aurkeztuko dira»

Antton Izagirre (Tolosa, 1953) Nazio Eztatidaguneko Mahaiko Gipuzkoako ordezkaria da. Gaur egingo den saioaz eta emango diren hurrengo pau- soen inguruan mintzatu da es- kualdeko kidea.

### Zer da gaur egingo dena?

Nazio Eztatidagunea azaroaren 24an egingo da. Horra begira bi dokumentu prestatu dira: bata, azken urteetan Euskal Herrian eman den bilakae- ra politikoaren azterketa egiten duena, eta bestea, ondorengo urteetarako ekimen plana. Gaurko parte-hartze eta ekar- pen foroan, dokumentu horri egiten zaizkion aldaketa, pro- posamen eta ekarpenak aur- keztuko dira. Hala, hemen ate- ratako dokumentuari proposa- men horiek erantsiko zaizkio, eta Nazio Eztatidagunea osa-



IÑIGO TERRADILLOS

tzen duten ia 400 kideei luzatu- ko zaizkie dokumentuak.

### Zein arlo jorratzen dira doku- mentu horretan?

Nazio Eraikuntzaren ikuspegi- tik garrantzitsuenak diren ar- loak aipatzen dira eta horietan egin beharrekoa agertzen da. Non dauden lehenetsunak eta

abar, baina ikuspegi orokorra nazioagintza da.

### Nazio Eztatidagunetik, azken urte honen zein balorazio egiten duzu?

Aurtengorako abagune alda- ketak eman dira. Joan den ur- tean negoziazio prozesuan sartuta geuden eta beste hel- buru batzuk zeuden. Aurteng- ora begira itxaropen horiek zapuztu egin dira. Honenbes- tez, horrek baldintzatu egiten du parte hartzeko modua eta jendeak izan dezakeen itxaro- pen.

### Datorren urteari begira zein- tzuk dira helburu nagusiak?

Alde batetik, nazioagintzako atzera begirako balorazioa egitea, eta bestetik, aurrera begira hurrengo urteko ekim- en nagusiak zeintzuk izango diren finkatzea. ◀

POLITIKA ▶



## Lehendakariak bere bidai orria aurkeztu du Tolosan

E. Ezeiza ▶ Juan Jose Ibarretxe, Euskal Autonomia Erkidegoko le- hendakaria atzo Leidor antzokian izan zen. «Euskal gatazkaren konponbideari heldzeko proposamena» aurkeztu. Jendez gair- nezka izan zen Leidor antzokia, bertan izan zirelarik EAJren or- dezkarri nagusiak. E. EZEIZA

GUTUN@K ▶

## Inposaketarik ez! AHTrik ez!

Orain da garaia Abiadura Handiko Trena geratzeko. Garaia da PNVk bultzatzen duen eredu kapitalista, «porlanza- le» eta diruzalea indartuko duen proiektu hau geratzeko. Bere garaian Lemoizekin egin zuten bezala, AHT gizarte ho- nek aurrera egiteko beharrez- ko eta ezinbesteko proiektua dela saldu nahi digute. Baina errealitatea oso ezberdina da. Izan ere, proiektu honek ez du garraioaren arazoa konpon- duko eta, gainera, Euskal Herriaren etorkizuna hipotekatu eta imajina ezinezko kaltea ekarriko du.

PNVk historikoki garapena proiektu handien eraikuntza- rekin lotu izan du, «garapen iraunkorra»ren lelopean. Baina garapena al da herri honen nahi eta beharrei muzin egin eta PNVren jauntxo patri- kak betetzeko helburua duen proiektua inposatzea? Inpo- saketa diogu, bai. Herriari in- formazioa ukatuz, ezkutuan, iritziak zapalduz eta eztabai- darik eman gabe horrelako

proiektu «faraonikoa» eraiki- tzea inposaketa baita. Horre- gatik jarri dugu abian Aneo- tan herri galdeketa batekin amaituko den prozesua. Eus- ko Jaurilaritzaren aldetik jasa- ten dugun informazio ezari, isiltasunari eta inposaketari aurre eginez, herritarrei AHTren informazioa zabaldu, ondoren eztabaida sustatu, eta azkenik herritarrei gai ho- nekiko iritzia emateko baliabi- deak ipini nahi baitizkiegu.

Orain da garaia herritar guztiak gai honetako kon- zientzitu, eta AHTk suposa- tzen duen arazoaren tamaina- ko garrantzia emateko. Soilik horrela lortuko dugu AHT gel- dituko duen harresi herritarra eraikitzea. Beraz, Aneotako ezker abertzaleak herritar guztiak gonbidatzen ditu pro- zesu honetan aurrera era- mango diren ekimen ezberdi- netan parte hartzera. Aukera izango dute AHTren atzean gordetzen duten benetako errealitatea ezagutzeko.

Inposaketarik ez!  
Abenduaren 2an Aneotak AHTri ez!

MIKEL URKOLA ▶ ANEOTAKO EZKER ABERTZALEAREN IZENEAN

Ahotsik ederrenen atzean ere, kutxa dago.

Tolosako 39. Abesbatza-Lehiaketa Urriaren 27tik azaroaren 4ra

Urtaro berria, bere Giza eta Kulturaren bilaketa. Kutxa! Iriztegiaren atzetik ere Tolosako Abesbatza-Lehiaketari, berroan 39. Edizioa iriztegiaren gure herriaren musika, kultura eta balioak zabaltzearen.

39

2007

gizarte elkarrekin

kultura

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA ▶

Eibar eta Zumaian, gaur eta bihar, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren Final Laurdenak jokatu dituzte. Eskualdeko bi bertsolari ariko dira finalaurrekorako txartela lortu nahian. Amaia Agirre billabonatarak gaur du zita Eibarren; Bixente Gorostidi amezketarrak berriz, bihar Zumaian. A. IMAZ

AMAIA AGIRRE ▶ BERTSOLARIA

## «Nire burua da nire lagun eta etsairik handiena»

Amaia Agirre Eibarko Coliseo antzokian ariko da gaur, 18:00etatik aurrera

G puntua, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan, Amaia Agirre (Villabona, 1977) gaur izango du bere lehen saioa, final-laurdenetarako zuzenean sailkaturik baitzegoen. **Atzetik datozen bertsolariak, motorrak berotuak izango dituzte. Zuk, berriz, gaurkoa duzu lehen saioa. Honak kezka edo urduritasuna sortzen dizu?** Orain arteko txapelketetan hasieratik hasi izan naiz, eta egia da ezberdina dela. Aurten ere hasieratik jarraitu dut txapelketa, eta bertsokideen gozaldi

eta sufrimentuak ere bizi izan ditut, baina ezberdina da. Nire burua da nire lagun eta etsairik handiena. Oraindik ez dakit zer nola dagoen nire burua, txapelketako tentsioa eskuratu nahi dut, baina hasierakoekin zuten presio hori gabe. **Nola prestatu duzu Txapelketa?** Orain arte ez bezala, aurten Zarauzko eta Lasarteko bertso-eskoletako lagunekin elkartu naiz. Aurten gogo eta behar ezberdinak sentitzen ditut, eta horien arabera ari naiz. Aurten ez dut etxean eta baka-

rrik gauza askorik egin, baina saiatu naiz irakurri dudanetik arrazoiak pilatzen. **Orain arteko saioak nola ikusi dituzu?** Jende gaztea eta ona dator. Oso maila handia dago, eta jendea ilusio handiz eta motibatuta ari da. Hasieran 72 hasi ziren eta 23 soilik pasa dira aurrera. Galbahea estu zegoen, eta horrek lanak zaildu egin ditu. **Gazteek ala 'betikoe'k, nor aurkituko du G puntua?** Hemen betiko ez da inor, baina aurten finalean aurpegi be-

rriak egongo direla egingo nuke apustu. Gozatzen duenak aurkituko du bere puntua. Edo puntuak dagoenak aurkituko du bere burua. **Parte hartzea ala irabaztea da garrantzitsuena?** Parte hartzea ezinbestekoa da irabazi nahi bada. Batzuk lehen txapelketa izan dute, eta probatzera etorri dira, esperientzia berri baten bila. Nik dagoeneko ezin dezaket hori esan. Ni nire saioan lehenengo egitera joango naiz nirekin kantatuko duten beste bostak bezala.



IMANOL GARCIA

**Plaza ala Txapelketa duzu nahiago?**

Txapelketari panikoa diot, beldurra, bertigoa... Mahai inguruko jarduna da gehiena estimatzen dudana. Librea eta luze aritzeak motibatzen nau, baina txapelketa erakusleho handia da, eta hortik pasa beharra du gora iritsi nahi duenak, zoritxarrez. ◀

BIXENTE GOROSTIDI ▶ BERTSOLARIA

## «Jendearekin komunikazioa lortzen baduzu, epaileekin ere lortzen duzu»

Amezketarra bihar 17:00etan aritu da Zumaiako Maria eta Jose ikastetxean

Lehen fasean, Getariko saioan hain zuzen ere, puntu gehien lortu zituen bertsolaria izan zen Bixente Gorostidi (Amezketarra, 1971). Bihar, final-laurdenetako saioa jokatu du Zumaian. **Nola ikusi zenuen zure burua Getarian?** Egia esan ez zen oso saio dizitarratsua izan. Gero jendeak esan zidan puntuatu ere nahiko baju egin zutela. Baina normalean

kantatzen ari garenean somatzen dugu gutxi gorabehara, ondo ari garen edo gaizki ari garen. Eta han ikusten genuen akats gehiegi egin gabe baina gozatu gabe genbiltzala. Hasierako saioa izanda, alde batetik normalean da; hurrengo fasea pasatu nahiak eta presioa sortzen du. Gainera, kontutan eduki behar da lehen fasean 73 bertsolari inguru ginela. Hauetatik 23 bakarrik pasa gi-

nen. Horren eraginez tentsioz betetako saioak izaten dira. **Zein da zure helburua txapelketan?** Ia beti saio on bat egitearen helburua izaten dut. Final-laurdenetan ea ori lortzen dutan, sailkapen fasean ez nuelako bertsotan gehiegi gozatu. Nere buruarekin gustura geratzea nahi nuke eta ahal izanez gero aurrerako urratsa ematea.

**Txapelketan publikoari edo epaileei kantatzen diozu?** Berez biak bilatu behar ditut. Bertsotan lehen helburua jendearengana iristea da. Komunikazioa lortzen baduzu jendearekin, epaileekin ere lortzen da. Azkenen epaileak entzule adituak bezala hartzen ditut nik behintzat. Lehen urratsa jendearengana heletzea da, gero saiatzen naiz ahalik eta dotoreen iristen. ◀



ASIER IMAZ

iragarki laburrak ▶

**SALGAI**  
Trikitixa. Egoera onean dagoen trikitixa. 669 67 36 49.  
**Pottokak eta traktorea.**  
Pottoka kalifikatuak eta diru-laguntzarekin, eta traktorea Agria 9900, egoera onean. 692 16 61 80 eta 692 54 49 36.  
**Pisua.** Diseinuko pisua Lizartzan. 110 m2, belarditxoarekin. 38.000.000 pzta. 653 74 47 75.  
**LANA**  
**Sukaldaria.** Tolosan sukaldariko pertsona bat behar da ostiral eta larunbat gauetarako. 699 71 02 73.

**ARAMBURU**  
Salgai (Ibarra).  
Garajeak Euskal Herria kalean, irekiak.  
Salgai (Tolosa). Garajeak Leitor azpian.  
Salgai (Ibarra).  
Lokala Euskal Herria kalean.  
Salgai (Tolosa).  
Garaje itxia San Frantzisko kalean.  
Salgai edo Alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, zentroan.  
Alokatzeko (Tolosa).  
Pisua gutiz alizariz homitua, Larramendin.  
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak irekiak, Araba etorbidean eta Igarondo kalean.  
Alokatzeko (Tolosa).  
Garaje itxiak, San Frantzisko eta Iurren.  
Alokatzeko (Leaburuko bidean).  
Pabilioi industriala.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK  
...ETA ORAIN  
**PROBIURRAK**  
Jogurta  
Mahala Baserrira - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

**BANAKETA ENPRESA** batek banatzaileak behar ditu Donostian, Urolan eta Tolosan.  
**Lan baldintzak:**  
• Astean sei egun. Asteartetik igandera.  
• Bi aste lan, bat jai.  
• Egunean 4 ordu.  
• Goizeko 04:00etatik 08:00etara.  
**Ezinbestekoa da autoa izatea**  
Deitu lehenbailehen telefono honetara: 943-30 43 41. Edo bidali zure datuak helbide elektronikoko honetara: lanpoltsa@etxeraino.net.

VILLABONA ▶ GENERO INDARKERIA

# Gizonezko bat atxilotu dute emaztea jipoitzeagatik

Biktima haurdun dago eta aurretik jaso izan ditu erasoak, Ertzaintzak dioenez

IMANOL GARCIA

Ertzaintzak 31 urteko gizonezko bat atxilotu zuen ostegun gauean, Villabonan, emaztea jipoitu izana egotzita. Biktima haurdun dago, eta osasun asistentzia behar izan zuen.

Gaueko hamabiak inguruan jaso zuen abisua Ertzaintzak. Agenteak bertaratu zirenean, senarrak zapladak eta ostikoak eman zizkiola jakinarazi zien emakume batek. Ezpainetako bat handituta eta zauri bat odoletan zituela ikusi zuten ertzainek.

Ustezko erasotzaileak, bere jarrera aldatu beharrean, emaztearekin eztabaidan jarraitu zuen eta mehatxatu egin

zuen ertzainean aurrean, Herri-zaingo Siletik jakinarazi dute. Hori ikusita, agenteek atxilotu egin zuten biktimaren senarra, familiaratean tratatu txarrak ematea egotzita. Jarraian, emakumea osasun zentro batera joan zen, patruila batek lagunduta, lesioak sendatzera.

Ertzaintzak geroago jakin ahal izan zuenez, gertakariak gaueko hamarrek aldera jazo ziren, bikotearen etxebizitzan, emakumea afaria prestatzen ari zen bitartean bikotekideak eztabaidan hasi eta gero. Horretan ari zirenean, eta betiere salatzailearen arabera, gizonezkoak zenbait zaplazteko eta ostikada eman zizkion, eta lis-

tua bota zion, behin baino gehiagotan. Biktima haurdun dagoen arren, haurdunaldian beste bi aldiz ere eraso dio senarrak. Gainera, emakumeak irainak eta laidoak jasotzen ditu maiz, eta duela urte eta erdi horren moduko beste gertakari bat jasan zuen, Ertzaintzak azaldu duenez. Atxilotuak atzo goizean Tolosako Guardiako Epaitegian deklaratu zuen.

## Etzi, elkarretaratzea

Tolosaldeko Bilgune Feministak elkarretaratzea deitu du aste honetan Zizurkilen eta Villabonan eman diren «eraso-engatik». Etzi egingo dute, Zi-

zurkil eta Villabona artean dagoen Zubimuxu zubian, 20:00etan.

Hain justu, pasa den igande gauean Ertzainak Zizurkilen gizonezko bat atxilotu zuen emakume bati eraso sexualak egin izana egotzita. Epaileak aske utzi zuen, kautelazko neurrik hartu gabe eta epaiketaren zain utzi zuen kasua.

Bilgune Feministak berriro ere gogor salatu du Villabonan izandako «erasoa». Aurreko kasuan azaldu bezala, Bilguneak berretsi du indarkeria sexista «arazo sozial bat» dela eta hori konpontzeko benetako erantzun soziala eta sexuen arteko botere harremanen iraultza behar dela.

ROLLESKI IGOERA ▶

## Hernialdeko 7. Rolleski Igoera jokoan, gaur arratsaldean

ERREDAKZIOA

Tolosako Alpino Uzturre elkarteak antolatzen duen Hernialdeko 7. Rolleski Igoera proba gaur 16:00etan emango diote hasiera. Tolosako Belate auzotik aterako dira skating eran egiten dutenek eta Hernialdera joateko bidegurutzetik aterako dira klasiko eran egiten dutenek.

Atzo eguerdirako 66 lagunek eman zuten izena. Gehienak gipuzkoarrak eta nafarrek dira, Aragoiko (Espainia) batzuk ere eman dute izena eta galiziar batek ere bai. Beste urteetako esperientziak erakusten duenez, azken egunean jendeak izena eman ohi du, beraz, ia 70 parte-hartzaileak erraz gaudituko dituzte.

Izena emateko 685 776 504 zenbakira deitu daiteke edo Belatera joan irteera eman baino ordu erdi lehenago.

VILLABONA ▶ ENRIQUE ABRIL ERREBOTE TXAPELKETA

## Luzaz Gazte eta Kapito Harri, finalean

ERREDAKZIOA

XLIV. Enrique Abril Errebote Txapelketa-Kutxa Sariaren finala jokatu dute bihar Kapi-

to Harri (Ustaritze) eta Luzaz Gazte (Donibane Lohizune) taldeek. Villabonako Errebote plazan jokatu dute partida, 11:00etan.

Iazko bi finalistak elkar ikusiko dute berriro ere aurtengo finalean. Txapelketako antolazaleek azaltzen dutenez, gaur egun antolatu daitekeen errebote partidarik onenetakoa da bihar bi talde horiek jokatu dutena, punta-puntan baita biltza azken urteotan. Kapito Harri taldea izan zen iazko ezusteko txapelduna, Luzeaz Gazte faboritoari 13-5 irabazi eta gero.



Iazko finaleko irudi bat. HITZA

ANOETA ▶

## Eskalada saio praktikoa Mendi Astearen baitan

Anoetako Mendi Astearen baitan, gaur eskalada saio praktikoa egingo dute Hernaniko Santa Barbaran. 16:00etan geldituko dira Anoetako plazan kotxe desberdinetan joateko bertaraino. Biharkorako Urnietan dagoen Adarra mendira irteera antolatu dute. 3 ordu inguruko buelta egingo dute. 09:00etan gelditu dira plazan elkarrekin joateko kotxez. Mendi sorospeneko praktikak egingo dituzte.

ANOETA ▶

## Sendabelarrei buruzko ikastaroa antolatu dute

Anoetako Udalak sendabelarrei buruzko ikastaroa antolatu du. Azaroko lehen astetik Gabonak arte, astean behin 1,5 orduko saioak egingo dituzte. Prezioa 30 eurokoa da eta izen-ematea udaletxean edo kiroldegian egin daiteke, hilaren 30a arte.



laster zureago...

ALEGIA ▶ AHT

# Udalak trenaren proiektuaren aurkako mozioa onartu du

AHTren aurkako jarrera erakutsiz eta arrazoituz, hainbat konpromiso hartu ditu «herritarren borondatea betetzeko»



Herenegungo osoko bilkuran PSE-EEren zinegotziak bakarrik eman zuten mozioaren kontrako bozka. n. u.

## NEREA URBIZU

Herenegun iluntzean Alegiako Udalak plenoa izan zuten. Bertan, ordenantza fiskalen aldatzen berri eman ondoren, AHTren kontrako mozioa onartu zuten. Aitor Sarasola alkateak eta alderdiko (EAE-ANV) 5 zinegotziek mozioaren alde eman zuten bozka, eta oposizio zinegotziak (PSE-EE), al-diz, kontra.

«Mozio bat aurkezten dugu: AHT proiektuaren inguruko ikuspuntua zein den erakutsi nahi dugu eta Udal bezala zein konpromiso hartuko ditugun ezagutzera eman nahi dugu». Udalbatzak AHTren aurkako jarrera agertu zuten, honako arrazoiak emanez: besteak beste, «diru publikoaren xahutze handia suposatuko luke urte askotako aurrekontuak baldintzatuz eta behar sozialak irtenbiderik gabe utziz».

Alegiako Udalak Eusko Jaur-laritzako eta Nafarroako Go-

bernuko Garraio eta Herri Lan Sailei nahiz Espainiako eta Frantziako Sustapen Ministerioei egiasmoaren («inposaketa») albo batera uzteko exijituko die. Herritarren ordezkari diren heinean, «egitasmo antiekologiko eta antisozial» hori gelditu eta «aipatu eztabaida eta erabakitze prozesua bultzatzeko ahalegin guztiak» egitearen konpromisoa erakutsi dute. Gainera, «gure herritarren ordezkari gisa, hauen borondatea errespetatzeko» konpromisoa hartu du Udalak.

Administrazioari AHT egitasmoaren inguruan «informazio erreala zabaltzeko exijituko» konpromisoa zabaldu du. Laguntzeko prest ere agertu da Udalak: AHTren aurkako herri mugimendurekin, eta zehazki AHTk zuzenean kaltetutako gainontzeko herrietako udalbatza eta zinegotziekin «indarrak batu eta elkarlanean jarduteko konpromisoa» hartu baitu. «Gure ustez, AHTk ez du

lotzen ezer, eta kalteak gehiago dira onurak baino».

Bestalde, Alegiako Udala Anoetakoarekin jarri da harremanetan. Anoetak AHTri buruzko herri kontsulta egin behar baitu, Alegiak apirilaren 1ean egin bezala. Alegiako Udalak gomen-dio edo aholku batzuk eman dizkio Anoetari alkateak argitu bezala, haien esperientziatik abiatuta. Hasteko, apirilerrako prestatu zituzten panel informatiboak utzi dizkiete.

## Tasen igoera

Udal Plenoan ordenantza fiskalen aldatzea ezagutzera eman zuten. Esaterako, zaborren tasak igoko direla eman zuten ezagutzera, %20, hain zuzen. Uraren zerga ere areagotu egingo da, %25, izan ere, Ibiur urtegia egitearekin gehiago igoko da. Uretan nahiz eta kontsumoaren arabera banatuta egon, hirurei igoera bera aplikatuko zaie.

ALEGIA ▶



## De Tororen Arabako zubia Alegiko jubilatuen tabernan

**Erredakzioa** ▶ Rufino de Tororen margolanak azken asteburuz Alegiko jubilatuen tabernan izango dira ikusgai. Margolan hauetan kolore oso errealak erabiltzen ditu artistak. Marinelak ere badira, eta erretratoak. Dagoeneko hainbat koadro saldu ditu Alegian, dauzkaten kolore eta kalitatearengatik. R. DE TORO

LEITZA ▶

## Aurrera Pilota eskolakoak, gaur eta bihar

Gaur Leitzako Aurrerako pilotariak hainbat partida jokatuko dituzte. 10:00etatik aurrera Nafar Jokoetan 6 partida jokatuko dituzte. Burlatako Txapelketan alebinak 18:30ean ariko dira Burlatan. DV Txapelketan Erreterian 17:00etan promesak ariko dira, eta bihar, 12:00etan. Lizarrakoan infantilak.

TOLOSA ▶

## Alkizara ibilaldia antolatu du Laskorainek

Bihar mendi ibilaldi lasai bat antolatu du Laskorain ikastolak. 09:30ean Berazubi kiroldegian elkartuko dira aurotoak antolatuzeko. Alkizara joango dira eta 10:00etan plazatik abiatuz Askantxoko ibilbidea egingo dute. Ibilaldi honek 4,3 km neurtzen du. Alkizan bertan gero bazkaldu egin ahalgo dute.

*Wolfgang Puck*

Pintxoak-otartekoak-plater konbinatuak-sandwichak-hanburgesak  
Kartako menua-taldeentzat menuak-sagardotegiko menua

Usabal Kiroldegia  
Tolosa Tel.: 943 577573  
www.bidebide.es

*bidebide*  
restaurantebai

# garenak X2 izateko

lortu ezazu **hitza**ren  
**harpidedun berri bat**

eta **opari bana** jasoko duzue

aukeratu  
gustuko  
duzun  
oparia



BEZERO ARRETA ZENBAKIA:

**902 820 201**

**hitza**

astegunetan: 08:30 - 20:30  
larunbatetan: 09:00 - 13:00

VILLABONA ▶ KULTURA

# Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketako kanporaketa, gaur

Lehenengo kanporaketa joan den larunbatean egin eta gero, bigarrena gaur izango da, Gurea Aretoan, 18:00etan



Zugarramurdi taldeak irabazi zuen lehenengo urtean bere kategorian. Kideetako bat Amasakoa da. HITZA

**ERREDAKZIOA**

Joan den larunbatean Urretxuko Labega Aretoan Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketaren lehenengo kanporaketa ospatu ondoren, gaur Villabonako Gurea Aretoan bigarren kanporaketa izango da, 18:00etan. Finala Donostiako Antzoki Zaharrean egingo dute, azaroaren 10ean, 18:00etan, baina hori baino lehen eta gaurko kanporaketaren ondoren. Lezoin hirugarren kanporaketa egingo dute, ostegunean, Gezala Auditoriumean, 18:00etan.

Guztira 18 bakarlarik, 15 bikotek eta 4 taldek parte hartu zuten lehenengo kanporaketan, eta gaurkoan 8 bakarlarik (5 eskualdekoak, Ibarra, Berastegi, Asteasu, Zizurkil eta Berastegikoak), 4 bikotek (laurak eskualdekoak, Berastegi, Zizurkil, Villabona, Lizartza eta Tolosakoak) eta talde batek (T-Klax taldea, Ibarra) hartuko dute parte.

Euskal Kantu Txapelketa 3 sailetan dago banatua eta gazteek batean edo bestean har dezakete parte: banakako sailean, binakako sailean ala tal-

dekakoan. Gainera, A capella eta Sorkuntza izeneko kategoriak ere sustatu nahi izan dituzte. Lurralde ekitaldietan, epaimahaikideen ustez onenak diren hirurak sailkatuko dira 4 urtez behin egiten den Euskal Herriko Euskal Kantu Txapelketaren finalera joateko.

**Zenbait berrikuntza**

2007ko Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketak berrikuntza txiki batzuk izan ditu, izan ere, aurten lehen aldiz urteroko bihurtuko baita. Bestalde, iaz

helduei zuzendutako Euskal Kantu Txapelketa 2006ko Aste Santuaren bueltan egin zen eta hau izango da, hain zuzen ere, nabarmentzeko bigarren aldaketa: Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketa udaberririk udazkenera pasa dela. Ainhoa Ansa Euskal Kantuzaleen Elkarteak Koordinatzaileak azaldu duenez, «proba moduan hartu dugu. Aurten oso pozik gaude izandako erantzunarekin, aspaldian izan den parte hartzaile kopuru handiena izango baitugu gure herrietako oholtzetan kantari».

**Txapelketaren xedea**

Euskal Kantuzaleen Elkarteak urte asko daramatza euskal kantuak biltzen eta hauek ezaugarazteko bideak sortzen. Zentzu honetan, kantatzeko ohitura gorde eta bultzatuz, eta kantuaren inguruko gaiak jorratuz, kantuaren osasuna zaintzeko dihardu lanean. «Hau guztia dela eta, 1987. urtetik hona, Iparraldean lehenagotik egiten zen ereduari jarraituz, Hegoaldean Euskal Kantu Txapelketak antolatzen dihardu gure elkarteak», dio Ansa. Hain zuzen ere, aurten goa, Gipuzkoan antolatzen den 11. Euskal Kantu Txapelketa izango da.

Ana Ansa txapelketa honen helburua azaldu du. «Txapelketa honen bidez kantatzeko ohitura bultzatu nahi dugu. Honetaz gain, gure helburuak hauek dira: euskararen erabilpena berpiztea, hemen ditugun kantari trebeak topatzea eta hauei publikoki agertzeko aukera ematea».

Gipuzkoako Txapelketako irabazleak hurrengo urtean egingo den Euskal Herriko Txapelketan lehiatuko dira.

TOLOSA ▶



Isidro Larrañaga Orkestra. HITZA

## Isidro Larrañaga Orkestra, Pragara

'Praghe Armonica Days' izeneko txapelketan parte hartuko dute

**ERREDAKZIOA**

Tolosako Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak Pragako Akordeoi Lehiaketan hartuko du parte. Guztira 23 kide abiatuko dira datorren asteartean Pragara aldera. Tartean geldialdi batzuk egin ostean, ostegunean iritsiko dira bertara, eta ostiralean bertako eliza batean kontzertua eskainiko dute. Larunbat goizean hasiko da Europa mailan garrantzitsuen den Akordeoi Lehiaketa, *Praghe Armonica Days* izenekoak. Taldekide berri batekin doaz, baxua jotzen duen Miren Naldaizekin.

Lehiaketarako 2 obra berri prestatu dituzte: Liszt maisuaren *Hungariar Rapsodia* eta Bach-en *Braefagium*. «Espero dugu epaimahaikak kontuan hartzea obra hauek duten zailtasuna, programa librea baita», azaldu dute orkestrako partaideek.

Tolosako taldeak nazioartean parte hartu zuen azken lehiaketa Suitzako izan zen, eta han urrezko domina lortu zuten.

**GIPUZKOAKO XI. EUSKAL KANTU TXAPELKETA ▶ VILLABONA, BIGARREN KANPORAKETA**

**PARTAIDEAK**

- 1. Maialen Etxeberria eta Iñaki Barriola (Berastegi).
- 2. Saiola Lertxundi (Aia).
- 3. Oihane Sarasola (Ibarra).

- 4. Lierni Aburuza eta Alaitz Ormazabal (Zizurkil).
- 5. M. Etxeberria (Berastegi).
- 6. Jagoba Astiazaran (Zestoa).
- 7. Kristina Aranzabe eta Leire Berasaluze (Villabona).

- 8. Jone Arruabarrena Azpeitia).
- 9. Naroa Geresta (Asteasu).
- 10. Arantxa Goikoetxeandia eta Marta Estanga (Lizartza eta Tolosa).
- 11. Alaitz Ormazabal (Zizurkil).

- 12. Iñaki Barriola (Berastegi).
- 13. T-Klax taldea (Ibarra),  
▶ Orotara, eskualdeko  
14 abeslari ariko dira gaur  
Villabonan.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

OINATZ BENGOETXEA ▶ PILOTARIA

# «Biharko partidua berezia izango da Leitzarentzat»

Leitzarra lau t'erdiko txapelketan murgildurik dago eta Abel Barriolaren aurkako derbia jokatu du bihar

UR ALGERO

Leitzako pilotalekuan elkartu gara Oinatz Bengoetxearekin (Leitza, 1984). Galderei erantzun bitartean pilota eskolako gaztetxoekin entrenamendua adi jarraitu du, eta noizbehinka aholkuak eman dizkie. Argi dago Oinatzek pilota maite duela eta harreman ezin hobea duela entrenatzen dituen gaztetxoekin. Igandeko partiduari begira dago une honetan.

**Aurreneko partiduan zortzi tantotan utzi zenuen aurkaria, bigarrenean hamarrean, sorpresa al da hain hasiera ona ematean?**

Ez. Sorpresa ere ez, badakizu irabazi edo galdu egin dezakezula eta markagailua ere altua goa edo baxuagoa izan daitekeela. Eta aise irabazten hasten bada errazago jokatzen da.

**Nola ikusi zenuen Goñiren kontrako partidua?**

Hasiera azkarra izan zen, baina gero geldialdi asko izan ziren

eta partidua arraroa izan zen. Mikelek mina ere hartu zuen izterrean, eta nik ere ahal bezala jarraitu nuen partidua. Hasieran abantaila handia hartu nuen eta mantentzea lortu nuen.

**Zure ustez txapelketa behar bezala prestatu duzu edo oraindik zerbaiteko hobetuko zenuke?**

Denboraren arabera agian gehiegi ez dut prestatu, bi entrenamendu bakarrik txapelketa hasi arte. Orain berriz, partidua eta beste entrenamenduren bat, baina gehiegi ere ez. Baina bueno denak ere berdintsu gaude eta nik uste nahikoa izaten dela. Agian gehiago ibiltzea eskertuko zen. Lau t'erdikoa modalitate ezberdina da eta prestaketa espezifiko egin behar da; beste modu batean ibili behar da pilotarekin.

**Nahiko uda polita egin duzu, Donostian eta Logroñon irabazi duzu, zure ustez egindako lana ona da edo Abelekin jokatzeak asko laguntzen du?**


Bueno, nik uste biek lan ona egin dugula. Torneo bat irabazteko biek ere asko jokatu beharra dugu. Bi txapelketetan biek oso ongi jokatu dugu eta maila oso polita eman dugula eta uda oso polita egin dugula uste dut.

**Nola ikusten duzu zure burua txapelketan, aurrera begira?**

Goñiren kontra kolpea hartu nuen bizkarrean eta hasieran gauza askorik ez zela uste banuen ere orain traba egiten dit. Gaur [asteazkena] izango naiz medikuarekin pilotak aukeratzekoan, eta ia zer esaten duen. Ostiralera arte ez dut jakingo jokatze moduan naitzen eta ezta ehuneko ehunean iritsiko naizen ere.

**Zer sentitzen da zure bikote izan denaren aurka jokatu behar denean?**

Bikotea izan da, baina beno, Abel da eta gainera espezialista izango litzateke. Gauza handia izango litzateke niretzat, Leitzako



UR ALGERO

ko herriarentzat eta Abelen-tzat. Sekula ez gara txapelketa batean banaka elkarren kontra aritu eta gauza handia izango da bientzat.

**Eta nola ikusten da partidua?**

Abelen aurka jokatzea gogorra izango da, espezialista handia da. Txapelketa izana da, iaz finalen izan zen... Baina ongi iristen banaiz eta nire jokoa egiten badut gerra pixka bat emango diot eta biek izango dugu aukera.

**Faboritorik ikusten al duzu txapelketa honetan?**

Nik uste faboritoak asko izan daitezkeela, ez daukat faborito argirik. Pilotari asko daude hor kandidatoak izan daitezkeenak. Txapelketa ona egin, joko puntu ona hartu eta zortea daukanak irabaziko du, gauza asko izaten dira hor. Baina hautagai asko daude, beti bezala.

**Ausartzen al zara izenik aipatzen?**

Betiko horiek ezta? Abel espezialista handia izaten da, Irujo, Aimar Olaizola... nire ustez, horiek dira azkeneko urteetan txapeldun izan direnak eta hautagai nagusiak, baina, hauetaz gain pilotari asko gaude finalera allegatu eta irabazi dezaketena.

**Norbaitek sorpresarik eman dezake aurtan?**

Beti izaten da momentu onean harrapatzen duen pilotariren bat eta edozeini irabazi diezaioke. Partidu hauek horrela izaten dira, jokatu egin behar dira eta batek egun ona badu irabazi egiten du. Urtero izaten da sorpresaren bat eta aurtan ere izanen da.

**Azken urteetan pilotari asko eman ditu Leitzako pilota eskolak. Zer dago horren atzean?**

Gauza asko daude horren atzean, alde batetik afizio handia dago herrian eta umeak beti pilotan ibiltzen hasten dira; pilota eskolan ere lana ahal den hobekiena egiten saiatzen gara. Berez, hau eskualde emankorra da eta pilotari on asko ateratzen dira, baina zailtzarik gabe afizioak asko laguntzen du.

**Aurtan Mikel Olazabalek debuta egin du, nola ikusten duzu?**

Nik oso perspektiba ona haritzen diot. Nik uste denek espero genuena baino maila askoz hobea ematen ari dela, abuztuan debutatu zuen eta dagoe-neko Irujoren kontra jokatu eta irabazi egin zuen. Maila ikara-

garria ematen ari da daraman denbora gutxirako eta ziur gora joango dela.

**Leitzak eman beharreko pilotariak eman ditu edo oraindik zer esana emango du.**

Nik uste baietz, pilota eskolan ibiltzen naiz umeekin eta hor pilotari onak izan daitezkeen mutiko asko daude eta uste dut laister pilotari onak aterako direla.

**Zer ekarpen egiten diozu pilota eskolari?**

Ba guk dakigun gutxia, dakiguna erakusten saiatzen gara. Guri ere txikiak ginenean lagundu ziguten eta guk ere gure lan txiki ere ematen diogu hainbeste maite dugun kirolari eta herriko umei.

**Zu bezalako pilotari ezagunekin ikasteak haurrak motibatzeko laguntzen al du?**

Baietz espero dut, baina azkenean beraiek egin behar dute lana eta jartzen duten gogoia izaten da. Eta azkenean guregatik gogo handiagoa jartzen badute hobe, baina azken finean bakoitzak berea egin beharra du. Nik ez dut bere partez jokatzen eta beraiek atera behar dute aurrera eta gu animatzen eta erakusten saiatzen gara.

## BIHARKO PARTIDUA

«Bizkarrean mina daukat eta ez dakit igandean ehuneko ehunean jokatu ahalko dudan»

## MIKEL OLAZABAL

«Denek espero genuena baino askoz maila hobea ematen ari da, ziur oraindik gora joango dela»

## PILOTA ESKOLA

«Leitzako pilota eskolan onak izan daitezkeen mutiko asko daude, ziur laister pilotari onak aterako direla»

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Asteasu.** Asteasuko I. Argazki Rallya: 09:00etan elkartuko dira; 13:00ak arte argazkiak aurkezteko aukera izango dute parte-hartzaileek.

**Leitza.** Garagardo Pesta Leitzako Torrearen taberna: afaria eta DJ Bertoso.

**Orexa.** Kultur Hamabostaldia baitan, 18:00etan talo egitea eta dastaketa Orixe elkartean; eta 22:30etan Dominika eta Niko Etxart eta Robert Larrandaburuk musika emanaldia eskainiko dute.

**Tolosa.** Olarrain auzoko jaiak: 21:00eta auzokideen arteko afaria, eta ondoren, dantza saioa Aiora eta Maitane trikitilariekin.

**Tolosa.** Borrokan (Hondarribia) eta Hotel (Irun) musika taldeen emanaldia Bonberenean 22:30ean.

**Tolosa.** Irungo Ametsa Gazte Abesbatza, Ordiziako Oroith Abesbatza eta Pasaia Abesbatza izango dira Javier Bustoren zuzendaritzapean Abesbatzen Topaketan, San Frantzisko elizan, 20:30ean.

**Tolosa.** Iurre elkartean 10. urtemugan, bertso-afaria izango da Andoni Egaña eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariekin.

**Tolosa.** Izkingile edo errektadore lehiaketa zezen-plazan 17:30ean. Bederatzi bikote ariko dira nork uztai gehiago sartu biganben adarretan.

**Tolosa.** Ana Maria Machadoren *Pizti domatzailea* gaztekoentzako antzezlan eskainiko dute Aitziber Garmendia, Idoia Sanchez eta Kepa Errasti aktoreek Leidor aretoan 17:00etan.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *Invasion* filma emango dute Leidor aretoan, 19:30ean eta 22:30ean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.  
 Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Hirukide bateletan garaile

**TOLOSA ▶ Pio Baroja II. Bandera jokatu zuten pasa den igandean; Orixek eta Hirukidek parte hartu zuten; Hirukidekoak izan ziren garaile**



Hirukideko batel irabazlea. HITZA

**ERREDAKZIOA**

**P**asa den asteko igande goizean Irungo uretan Pio Baroja II. Eskolarteko Bandera jokatu zuten Irungo eskolak antolatuta. Bertan lau ikastetxetako batelek parte hartu zuten eta horietako bi Tolosakoak ziren. Orixe institutuko eta Hirukidekoak, hain zuzen ere. Batel hauetako eski-faiak, lemazainaz gain, bina mutilek eta bina neskek osatu zituzten.

Lau batelen arteko lehia es-tua izan zela azaldu dute, eta azkenean, Irungo Pio Baroja eta Tolosako Hirukide sailkatu ziren finalerako. «Estropada gogorrean» herrikoak izan ziren nagusi eta bandera etxera ekarri zuten.

Tolosaldeko Arraun Kluba-ren laguntza ere eskertu nahi izan dute, izan ere, Pio Baroja II. Eskolarteko Banderan aritu ziren hiru taldek Tolosatik eramandako batelekin parte hartu zuten.

Batelen eta ikastetxeen lagunarteko lehiarekin bukatu zutenean, jaiak aurrera jarraitu zuten, antolatzaile eta partaide guztiak elkarrekin bazkaltzera joan baitziren. Bazkarian estropadaren inguruan izandako kontuak elkarri kontatzeko aukera izan zuten, baina horretaz gain, erronka ere bota zioten elkarri datorren urterako; hain zuzen ere, maiatza edo ekaina aldera Tolosan ospatuko den II. Batel Topaketarako. Ikusi behar harko orduan zein den azkarrrena bateletan!

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Hegoi Baraibar Goñi (Areso).  
 Zorionak titiki! Ondo pasa zure hirugarren urtebetetze egunean. Muxu handi bat Berrobiko atton-amonen partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN  
Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN  
Udaletxeko bulegoa

**hitza** agurren tartea  
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**Kimetz**

denda berria

♂ **Mutil arropa** Kale Nagusia 13 943 24 94 96

♀ **Neska arropa** Kale Nagusia 21 943 67 38 62

**RENAULT occasion**

**TOLOSA IRAULI BEHARREAN**

Zain egon zara, eta horra. Gero ere, Tolosan... AUTOAZOKA, AUTOBERRIren sekulako ibilgailu Azoka.

Urriaren 25etik 27ra aukera paregabe duzu bila ibili zaren ibilgailua aurkitzeko, gamarik ugariena baitaukagu modelo matritulatuetan, km-rik gabe, aldean eraman dezazun. Zatoz urriaren 25, 26 eta 27an, 09:00etatik 13:00etara eta 15:30etatik 20:00etara.

AUTOAZOKA iraultza da.

AUTOAZOKAn ibilgailu bat erosi gero, hemen ikusten den TOMTOM nabigatzailea oparituko dizugu *eta gainera* **200€\***

compromiso RENAULT

**AUTOBERRI**  
 Anoeta Industrialdea, z/g Tel.: 943 65 28 43 TOLOSA

**AUTOAZOKA AUTOBERRIEN**  
 urriaren 25, 26 eta 27an

\* Irargari hau aurkeztuz